

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Portugaleteko Udala****Boluntariotza Portugaleten sustatzeko diru-laguntzen oinarri-arauak onestea**

Portugaleteko Udaltzatzen 2018ko ekainaren 28an egindako bilkuran boluntariotza sustatzeko diru-laguntzen oinarri-arau hauek onetsi zituen.

BOLUNTARIOTZA PORTUGALETEN SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZEN OINARRI-ARAUAK**1. artikulua. — Helburua**

Portugaleteko Udalak diruz lagundu behar ditu Portugaleten diharduten irabazi-asmorik gabeko entitate pribatuak, Portugaleteko gizarte mailako esku-hartze arloan boluntariotza eta elkarteen parte-hartzea sustatu eta sendotzeko jarduerak garatu ditzaten.

1. Oinarri-arauok diru-laguntzen lerro hauek arautzen dituzte:
 - a) Boluntariotza sustatzeko egitasmoen diru-laguntzak. Egitasmo horiek boluntarioak erakartzeko, sentsibilizatzeko, zabaltzeko, leialtzeko eta trebatzeko izan behar dute. Halaber, elkarteen barruko egitura sendotzeko balio behar dute.
 - b) Portugaleten Ikaskuntza eta Zerbitzu Solidarioa bultzatzeko egitasmoen diru-laguntzak. Egitasmo horiek zehatz-mehatz oinarri izan behar dute ikaskuntzari eta zerbitzuari buruzko alderdietan. Horren kariaz, egitasmoek deskribatu behar dute parte-hartzaileek egitasmoa burutzean nola parte hartzen duten, alegia, beharrak antzemateko, egitasmoa diseinatu, burutu baita azken ebaluazioa egiteko orduan ere.
2. Diruz laguntzeko moduko jarduerak burutzeko epea diru-laguntza hauetako deialdiaren ekitaldikoa da.

2. artikulua. — Entitate onuradunak

Onuradunak izan ahalko dira eta beraz, diru-laguntza hauen eskatzaileak izango dira betekizunok betetzen dituzten entitate pribatu guztiak:

- Irabazi-asmorik gabeko entitateak izatea.
- Portugaleten egoitza soziala edo ordezkari izatea edo Portugaleten presentzia aktiboa izatea. Izan ere, presentzia aktibotzat ulertuko da boluntariotza arloan lan jarraitua eta proiektuak nahiz jarduerak Portugaleten egitea diru-laguntza hauen deialdia baino lehenago.
- Boluntariotza Portugaleten sustatzeko diruz lagunduak izatea nahi duten jarduerak Portugaleten egitea.
- Azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan agertutako betekizunet gain, ondoko hauek ere betetzea:
 - Gizarte Segurantzarekin tributu-beharrak, indarreko xehapenek ezarritakoak, ordainduta izatea.
 - Portugaleteko Udalarekin diru-laguntzak itzuli behar izateagatik ordainketak egunean edukitzea.

3. artikulua. — Diru-laguntzak emateko araubidea

Diruz laguntzeko moduko kontzeptuari aplikatu behar zaion erregimena norgehiagoka izango da. Norghegiagokaren erregimenean diru-laguntzen emakida honelaxe egiten da; aurkeztutako eskaerak elkarri alderatuta, horien zerrenda egingo da, oinarri-arau hauetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera, beti ere gainditu gabe deialdiak ezartzen duen aurrekontuaren zuzkiduraren zenbatekoa.

**4. artikulua. — Diruz lagundu daitezkeen gastuak**

Diruz laguntzekoak dira jarduera edo egitaraua burutzetik zuzen-zuzen datozen gastuak. Hala ere, zeharkako gastuak (gastu arruntak eta matenukoak) inputatu ahal izango dira, gehienez diru-laguntzaren zenbateko osoaren ehuneko hamarreraino (%10), gehienez 500 euro jaso ahal dutelarik. Portugaleten egoitzarik edo ordezkaritzarik ez duten elkarteek ezin izango dute onura hori baliatu.

5. artikulua. — Diruz ezin lagundu daitezkeen gastuak

Gastu hauek ez dira diruz lagunduko: jolas eta jai jardueretako txangoak, kultur-bidaiak eta bazkariak, askariak eta abarrak.

Inola ere ez dira diruz laguntzekoak izango banku-bermearen gastuak, ez eta antzerakoak ere.

6. artikulua. — Eskabideak eta epeak

Eskabideak egiteko idazki-eredua (l. eranskina) erabiliko da eta Portugaletako udaltxeko Erregistro Nagusira ekarriko da (astelehenetik ostiralera 8:00etatik 14:00etara), edo San Roke enparantzan dagoen Herritarren Informazio eta Arreta Bulegora (astelehenetik ostiralera 14:30etik 20:15era eta larunbatetan 9:00etatik 13:45era), deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasita zenbatu beharreko hila-betean.

Bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 16.4 atalak aurreikusten dituen bideak ere erabili ahal izango dira eskabide-orriak aurkeztu ahal izateko.

Epe horretatik kanpoko eskabiderik ez dugu onartuko.

Informazioa eta eskabide-orriak goian aipatutako Udaleko bulegoetan egongo dira eskuragarri, eta Udalaren web gunean (www.portugalete.org) ere bai.

7. artikulua. — Ekarki beharreko agiriak

Eskabidearekin batera, honako agiriak ekarriko dituzte eskatzaileek:

- Jardueraren proiektua, eredu ofizial normalizatuaren arabera (l. eranskina): jarduera identifikatu, proiektuaren beharra justifikatu, helburuak, deskripzioa, metodologia, onuradunak, egunak, giza baliabideak eta baliabide materialak eta ebaluatzeko erakusgarriak.
- Egitasmoaren aurrekontu xehatua. Aurrekontuaren barruan boluntarioen lana sartu ahalko da, zenbateko osoaren gehieneko muga %20koa delarik. Lan horren balorazioa Bizkaiko Gizarte Kontu Hartzailetzaren Hitzarmenaren arabera-koa izango da (langileria auxiliarra).
- Eskabidearen izenpetzaileak ordezkaritza-boterea duelako egiaztagiria. Elkar-teen legezko ordezkariaren NANen fotokopia.
- Identifikazio Fiskalerako Txartelaren fotokopia.
- Entitatearen estatutuen kopia eta zuzendaritza-batzordea osatzeko erabakiaren kopia erkatua.
- Elkartea Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan edo behar duen erregistroan inskribaturik dagoelako ziurtagiria edo horren fotokopia egiaztatua.
- Bankuaren egiaztagiria, kontu zenbakia, titularra eta baimenduak agertzen ditue-na. Titularitatea entitateari egokituko zaio eta ez pertsona fisiko bati.
- Bizkaiko Foru Ogasunaren agiria, elkarteak tributu beharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- Bizkaiko Gizarte Segurantzako Diruzaintzaren agiria, elkarteak Gizarte Seguran-tzarekikoa beharrak egunean dituela edo horietatik salbuetsita dagoela egiaztatzen duena.



- j) Zinpeko aitorpena, adierazteko elkarteak proiektu edo egitarau horrexetarako beste dir-laguntzarik eskatu ote duen edo ez. Beste diru-iturria edukiz gero, zenbatekoa ere adierazi beharko du.
- k) Zinpeko aitorpena, adierazteko ez entitatea, ezta haren ordezkariak ere, ez daukela sartuta diru-laguntzen onuraduna izatea galarazten duten zertzeladetan (38/2003 Diru-Laguntzen Lege Orokorreko 13.2 eta 13.3 atalak).
- l) Zinpeko aitorpena adierazteko entitatea ez dagoela administratiboki zigortuta sexu-diskriminazioagatik otsailaren 18ko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko 4/2005eko Legeari jarraiki.

Entitate eskatzaileak aurreko urteetan diru-laguntza hau eskatu izan balu, ez litza-teke beharturik egongo c), d) eta e) ataletan aipatzen diren agiriak berriro aurkeztera.

Baldin eta eskabideak guztiz formaltzen ez badira edo eskatzen ditugun agirietakoren bat falta badute, interesatuari errekerituko diogu hamar egunetan hutsa zuzen dezan edo falta diren agiriak ekar ditzan. Halaber ohartaraziko diogu, horrela egin ezean, ulertuko dugula etsi egin diola eskaerari, horrexetarako ebazpena emanda.

8. artikulua. — Ebazteko eta jakinarazteko epea

Diru-laguntza hauen deialdiaren urteko abenduaren 31 baino lehen ebatzi eta jakinaraziko zaizkie eskatzaileei. Ebazpenaren jakinarazpena Administrazio jardunbideari buruzko indarreko legeriaren arabera egingo da.

9. artikulua. — Organo eskuduna eta ebazpena

Jardunbidea zuzentzeko organo eskuduna Parte-Hartzea eta Gizarte Berrikuntza Saila izango da eta diru-laguntza emateko, aldiz, Udalaren Gobernu Batzordea. Udalaren Gobernu Batzordearen erabaki behin-betikoak agortu egingo du administrazio-bidea. Hala eta guztiz, laguntzaile gisara, batzorde ebaluatzailea arituko da. Haren osaera hau izango da:

- Batzorde ebaluatzaileko presidentea: Gizarte Parte hartze eta Berrikuntza Saileko zinegotzia edo hark eskuordetzen duena.
- Batzorde ebaluatzaileko idazkaria: Gizarte Parte hartze eta Berrikuntza Saileko teknikaria edo hark eskuordetzen duena.
- Boluntariotza Sustatzeko Udalaren Aholku Batzordeak proposatutako hiru kide.

Ezin izango dira Batzorde ebaluatzaileko kideak pertsonak edo entitateak, baldin eta haien izendapena bateraezina bada diru-laguntzak emateko prozesuaren instrukzioarekin.

10. artikulua. — Diru-laguntzen emakidaren zenbatekoa eta zehaztapena

Edonola ere, diru-laguntzak aurrekontuko kontsignaziora mugatuko dira.

Oinarri-arauotako 3. artikulua ezartzen duena gorabehera, aurkeztutako aurrekontua araztuta, entitateek eskatutako zenbatekoen batuketak urteko aurrekontua gailentzen badu, aurrekontu hori homogeneoki banatuko da, aurkeztutako proiektu bakoitzeko lortutako puntuazioaren eta eskatutako zenbatekoaren artean, aurrekontu eskuragarriaren mugarekin.

Aurrekontu araztutzat joko da gerakina, behin aurkeztutako aurrekontutik diruz ezin lagundu daitezkeen gastuak kenduta.



- a) Elkartearen zenbatekoa ateratzeko, formula hauxe aplikatuko da:

$$SAi = (MCi * PDi / \text{SUMATORIO } MCi * PDi) * SP$$

$$SAi = \frac{MCi * PDi}{\sum_{i=1}^n MCi * PDi} * SP$$

n = Elkartek kopurua (i= 1, 2...n).

SP = Diru-laguntzaren aurrekontu eskuragarri osoa.

PDi = Elkartearen aurrekontu araztua.

MCi = Elkarteari eman beharreko %.

SAi = Elkarteari doitutako diru-laguntza.

- b) Diru-laguntzaren zenbatekoak, hala berez nola beste diru-laguntza batzuei gehituta, ez du sekula gaindituko diruz lagundutako jardueraren gostea.
- c) Egitarau edo jarduera bakoitzak gehienez bost mila euro (5.000 euro) jaso dezake.
- d) Ez dira balioetsiko bostehun euro (500 euro) gainditzen ez duen aurrekontu araztutun proposamenak. Izan ere, aurrekontu araztutzat joko da gerakina, behin aurkeztutako aurrekontutik diruz ezin lagundu daitezkeen gastuak kenduta.
- e) Diru-laguntza hauei zuzenduko zaie haien deialdian jasota agertzen den kopuru ekonomikoa, Udalak ekitaldi bakoitzean xede horretarako ezartzen duena izanik.

11. artikulua. — Hautatzeko eta baloratzeko irizpideak

Hona hemen eskabideak neurtzeko eta diru-laguntzak esleitzeko irizpideak:

1. PROIEKTUA ZEIN JARDUERA BALORATZEKO IRIZPIDEAK: GEHIENEZ HIRUROGEITA HAMAR (60) PUNTU
Gehienez 60 puntu emango diogu proiektu edo jarduerari, honako irizpideak kontuan hartuta:
 - Gehienez 30 puntu emango diogu proiektuari: helburuak, originalitatea, kalitatea, aurreikusten den gizarte-eragina, elaborazio maila, argitasuna eta kalitatea adierazpenean.
 - Gehienez 20 puntu, proiektua zuzentzen den eta balia dezakeen taldearen arabera; hots, talde onuradunen handiaren arabera, Batzorde ebaluatzaileak kontuan hartuko du, beraz, zein talde diren udalerrian behartsuenak. Boluntarioek garatzen dituzten egitarauak baloratuko dira, lurralde-handiaren arabera (Portugalete barruan) eta, aurreikuspen moduan, onuraduna izango den biztanleriarekiko proportzionalitatearen arabera. Era berean, eskatzailea udalaz gainera entitateekiko koordinazioa. (Gehienez 20 puntu).
 - Gehienez 10 puntu, gaien berrikuntzari eta jarduerak eta ikuspuntuak berriztatzeari, gizarte desabantaila eta boluntariotza-ekintzen bitartez zuzendu nahi diren beste hainbat eremu jorratzerakoan.
2. BIDERAGARRITASUNAREN GAIENKO IRIZPIDEAK: GEHIENEZ 20 PUNTU
 - *Giza-baliabideak*: kontuan hartuko da entitateak zenbat langile duen jarduera hori garatzeko. Gehienez 5 puntu.
 - *Baliabide egiturazkoak eta teknikoak*: kontuan hartuko da jarduera egiteko entitatearen baliabideak. Gehienez 5 puntu.
 - *Baliabide ekonomikoak*: autofinantzazio maila edo entitateak aurkeztutako aurrekontu osoa finantzatzeko bide desberdinak. Gehienez 10 puntu.

**3. IRIZPIDE BEREZIAK: GEHIENEZ HAMAR (20) PUNTU**

- Entitateek Portugalete udalerrian egoitza izatea. Entitatearen antzintasun-urteak:
 - 10 urte baino gutxiago: 2 puntu.
 - 10 urte baino gehiago: 4 puntu.
- Entitateak Udalaren Boluntariotzaren Aholku Batzordean (Boluntariotzako Foroa) parte hartzea. 2 puntutaraino.
- Entitatea herri onurakoa izatea. Puntu 1.
- Entitatearen esperientzia agerikoa, egitaraua garatzeko gaitasuna, antolatze gaitasuna eta boluntarioek zein neurritan diharduten entitatearen jardueretan. 5 puntutaraino.
- Jarduerak, aurrean burutu diren eta ebaluazio ona lortu duten beste batzuen jarraipena izatea. Puntu 1.
- Proiektuek trebakuntza ematea gizarte eta hezkuntza langile edo teknikariei, langile edo teknikari horiek boluntariotzako esku-hartzea jasotzen duen taldekoak izanik. 3 puntutaraino.
- Aurkeztutako proiektuak dituen helburuen artean emakume eta gizonen berdintasuna sustatzea. Puntu 1.
- Entitateak Gizarte Parte-Hartze eta Berrikuntza Sailarekin eta Boluntariotza Sustatzearen arloan kolaborazio aktiboa izatea. 3 puntutaraino.

12. artikulua. — Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Diru-laguntza hau bateragarria izango da beste batzuekin; dena den, onuradunek adierazi beharko dute besterik eskatu edota lortu ote duten.

13. artikulua. — Birformulatzea

Behin eskaerak ebatzita, proposatutako diru-laguntzaren zenbatekoa eskaerak dakarrena baino txikiagoa balitz, entitate eskatzaileak jakinarazpenaren egunetik hasita hamar eguneko epean bere eskaera birformulatzeko aukera izango du, jaso dezakeen diru-laguntzaren konpromiso eta baldintzetara doitze aldera.

Nolanahi ere, aurrekontuaren eta lortutako puntuazioaren arabera, entitate onuraduna behartuta egongo da aurrekontuko zenbateko osoa zuritza, behin Gizarte Parte-Hartze eta Berrikuntza Sailak onartuta birformulatzeko proposamena. Eskaeraren birformulazioak diru-laguntzaren helburua, baldintzak eta helmuga errespetatu beharko ditu. Orobat, eskaeren irizpideak kontuan hartuko ditu.

14. artikulua. — Diru-laguntzak justifikatu beharra

Deialdia egiten den urtearen hurrengo urteko otsailaren azken egunean amaituko da.

Entitate onuradunek jasotako Udalaren funtsen aplikazioaren justifikazioaren agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Justifikazioa egiteko, agiri hauek ekarriko dira:

- a) Diruz lagundutako jardueraren oroit-idazki justifikatiboa hauexek dakartzan eredu formalizatuan (II. eranskina):
 - Entitatearen legezko ordezkariaren agiria, diru-laguntzaren xedea aurkeztutako aurrekontu eta proiektuarekin bat etorritik bete dela egiaztatzeko.
 - Jarduera azaltzeko oroit-idazkia: lortutako emaitzen ebaluazioa, jardueraren parte-hartzaile eta onuradun kopurua, sexuaren arabera, barruan agertu behar delarik.
 - Jardueraren datu ekonomikoak.
 - Diruz lagundutako jardueraren gastu eta kostuak justifikatzeko agirien zerrenda zenbakiduna eta xehetua.
- b) Fakturak zerrenda batean aurkeztutako dira, jatorrizko fakturak edo fotokopia egiaztatuak. Horretarako, biak, jatorrizkoa eta kopia, ekarri beharko dira.



- c) Kartelak, esku-orriak, oroit-idazkiak eta gainontzeko material grafiko, soinu-zein idatzizkoa, zeinetan berariaz agertu behar baita Portugaleteko Udalaren babesa.

Justifikatu beharra bete ezean edo justifikazio nahikorik egin ezean, elkarteak itzuli egin beharko du jaso duen dirua gehi dagokion berandutza-korritua, Diru-Laguntzei buruzko Lege Orokorren 37.1 atalak agindu bezala.

15. artikulua. — Entitate onuradunen betebeharrak

Onuradunek Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Nagusiko 14. artikuluko betebeharrak bete beharko dituzte:

- a) Helburua betetzea, proiektua burutzea, jarduera egitea edo diru-laguntzaren emakida oinarritzen duen egoeran egotea.
- b) Betekizunak bete direla justifikatzea. Berebat, jarduera bete dela eta diru-laguntzaren emakida zehazten duten helburua ere bai.
- c) Diru-laguntzaren zenbatekoa osorik bideratzea jardueraren garapenera edo aurkeztutako programara.
- d) Proiektua edo jarduera Portugaleten egitea.
- e) Beste edozein erakunde edo entitatek helburu bererako emandako diru-laguntzak eskuratuz gero, horren berri eman behar izatea.
- f) Tributu-betebeharrak eta zuzenbide publikokoak, eta hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak bete behar izatea.
- g) Portugaleteko Udalak egingo dituen egiaztapen-jarduerak onartzea. Era berean, bai nazio mailakoak bai erkidegokoak diren organo eskudunek egin ditzaketen edozein egiaztapen edo finantza-kontrol ametitu beharko du. Horretarako, aipatutako jarduerak burutzeko eskatzen den informazio oro aurkeztu beharko du.
- h) Diruz lagundutako ekitaldi edo programak Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial bietan argitaratzea.
- i) Jarduerak eta ikuskizunak (erantzukizun zibileko aseguru, joko eta ikuskizunen arautegia, toki publikoa erabiltzeko baimena, eta abar) antolatzeke indarreko araudia betetzea.
- j) Kontabilitate-liburuak, bideratutako erregistroak eta gainerako agiriak behar bezala ikuskatuta edukitzea, kasu bakoitzean onuradunari aplikatu behar zaizkion merkataritza- eta sektore legeek ezarritakoaren arabera.
- k) Jasotako funtsen aplikazioaren agiri justifikagarriak gordetzea, agiri elektronikoak barne daudelarik, egiaztapen- eta kontrol-ekintzetan eskatzeko modukoak izan baitaitezke.
- l) Portugaleteko Udalarekin kolaborazio-lanak egitea diru-laguntza hauen xedearekin erlazionatuta dauden suposamenduetan.
- m) Elkarteak jarduerak edo programak antolatzearen ondoriozko gastu guztiak bere gain hartzea.
- n) Diru-laguntzaren xedea diren egitarau, jarduera, inbertsio edo jarduera mota ororen finantzazioaren izaera publikoari dagozkion zabalkunde-neurriak, legez ezarriak, hartzea. Jarduerak zabalkunde publikoa batik bat badute, Portugaleteko Udala babeslea dela agertzea.
- o) Diruz laguntzaren xede diren jarduera edo programetako edozein publizitate motatan Portugaleteko Udalaren aipamen berariazkoa egitea. Halaber, Gizarte Parte Hartzerako eta Berrikuntza Sailari jakinaraztea jarduera edo programa horiek zein egun eta ordutan izango diren.
- p) Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan, jasotako funtsak itzultzea.

**16. artikulua.—Diru-laguntza ordaindu**

Diru-laguntzaren zenbateko osoa aldi bakar batean ordainduko da, behin diru-laguntza erabakita, proiektuak egiteko beharrezko finantzatzioa eskuratzea erraztu nahian.

Diru-zenbatekoa banku-transferentziaz sartuko da entitateak adieraziko duen kontu-zenbakian. Kontu horren titularrak entitatea bera izan beharko du.

17. artikulua.—Arau aplikagarriak

Arau hauetan xedatu gabea ebazteko, azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Legea eta azaroaren 17ko 38/2003 legearen arautegia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretura, horrexetarako onartzen den udal ordenantzara eta gainontzeko arau orokor edo prozedurazko aplikagarrietara jo behar da.

Portugaleten, 2018ko uztailaren 20an.—Alkatea, Mikel Torres Lorenzo



I. ERANSKINA
BOLUNTARIOTZA PORTUGALETEN SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZETARAKO ESKAERA

ENTITATE ESKATZAILEAREN DATUAK	
Izena	
IFK	
Helbidea	
Herria	Posta kodea
Telefonia	Sakelakoa
Posta elektronikoa	Webgunea

ENTITATEKO ORDEZKARIAREN DATUAK	
Izen-abizenak	
NAN	Kargua
Telefonia	Posta elektronikoa

DIRU-LAGUNTZA JASOTZEKO PROIEKTUAREN DATUAK
Proiektuaren izena:
Proiektuaren geste osoa:
Eskatzen duen diru-laguntzaren zenbatekoa:

SOLASKIDEA	
Izen-abizenak	
Telefonia	Posta elektronikoa

BANKETXE EDO AURREZKI ENTITATEAREN DATUAK	
IBAN	
Jabea: _____	

**AITORTZEN DU**

- ☐ Ez duela xede berbererako inolako diru-laguntzarik eskatu.
- ☐ Xede berbererako beste diru-laguntza batzuk eskatu dituela. (Datuok aurrekontuan zehaztu behar dira).
- ☐ Ez entitatea, ezta haren ordezkariak ere, ez daudela sartuta diru-laguntzen onuraduna izatea galarazten duten zertzeladetan (38/2003 Diru-Laguntza Lege Orokorra 13.2 eta 13.3 atalak).
- ☐ Entitatea ez dagoela administratiboki zigortuta sexu-diskriminazioagatik otsailaren 18ko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko 4/2005eko Legeari jarraiki.

Entitate eskatzailearen Zuzendaritza Taldea osatzen duten kideak, eskaera egin zenean indarrean zegoelarik, honako hauek dira:

Kargua	Izen-abizenak
Presidentea	
Idazkaria	
Diruzaina	

- ☐ Eskaera honetan agertzen diren datuak zein aurkeztutako agiriak egiazkoak dira.

Entitatearen legezko ordezkariaren izenpea

Data

**PROIEKTUAREN DATUAK**

Izena

Azalpen laburra (gehienez 10 lerro) / Proiektua eskaera honi erantsita aurkeztuko da

Helburuak

Proiektuaren egutegia eta iraupena

Jardueraren kokagunea



GASTUAK	
EGITARAUAREN AURREKONTUA	
DIRU-SARRERAK	
Portugaleteko Udalari eskatutako zenbatekoa.	€
Beste administrazio batzuei (Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, etab.) eskatutako diru-laguntza.	€
Beste entitate batzuen ekarriak (bankuak, aurrezki kutxak, dendak...).	€
Entitatearen beraren ekarria.	€
Beste dirusarrera batzuk (zehaztu).	€
GUZTIRA	€
Entitatearen mantenuaren gastuak. Egoitza Portugaleten duten entitateetarako, gehienez jardueren edo proiektuaren aurrekontuaren %10 eta gehienez 500 euro.	€
Langileria (Gizarte Segurantzaren nominak eta gastuak).	€
Jardueraren gastu zuzenak (zehaztu).	€
	€
	€
	€
	€
	€
	€
Beste gastu batzuk (zehaztu).	€
	€
	€
	€
	€
	€
GUZTIRA	€

BANKETXE EDO AURREZKI ENTITATEAREN DATUAK

Jabea

Banketxea edo aurrezki entitatea

IBAN Kodea

[illegible]

Bankuaren adostasuna

Sinadura eta zigilua

* Datuak aldatu dituzten edo diru-laguntza aurreneko aldiz eskatzen duten entitateek bakarrik bete behar.



AURKEZTUTAKO AGIRIAK	
☐	Diru-laguntzarako eskaera.
☐	Jardueraren proiektua.
☐	Bizkaiko Foru Ogasunaren agiria, entitateak zerga betebeharrak egunean dituela ziurtatzeko.
☐	Bizkaiko Gizarte Segurantzako Diruzaintzaren agiria, Gizarte Segurantzarekiko ordainbeharrak egunean dituela edo horietatik salbuetsirik dagoela ziurtatzeko.
☐	Banketxeko helbideratzearen fitxa.
☐	Datuak babesteko erregelamendu orokorraren baimena.

Entitateak azken hiru urteotan aurkeztu ez baditu edo aldatu baditu soilik:

AURKEZTUTAKO AGIRIAK	
☐	Estatutuen kopia, entitateak azken hiru urteotan aurkeztu ez badu edo aldatu baditu soilik.
☐	Eskaera izenpetu eta egiten duenak ordezkatzeko ahalmena duelako egiaztagiria.
☐	Elkartearen legezko ordezkariaren pertsona fisikoaren NANaren fotokopia.
☐	Identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia.
☐	Dagokion erregistroan inskribaturik dagoelako ziurtapena.

**II. ERANSKINA
DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN JUSTIFIKAZIO-MEMORIA**

ENTITATE ESKATZAILEAREN DATUAK	
Izena	
Helbidea	
Herria	
PK	IFZ
Telefonoa	Helbide elektronikoa

ENTITATEKO ORDEZKARI LEGEZKOA	
Izen eta abizenak	
NAN	Kargua
Telefonoa	Helbide elektronikoa

JUSTIFIKATZEKO DIRU-LAGUNTZA	
Proiektuaren izena	
Emandako diru-laguntza	
Justifikatzeko kopurua	

SOLASKIDEA JUSTIFIKAZIO HONI DAGOKIONEZ	
Izen eta abizenak	
Telefonoa	Helbide elektronikoa

Portugalete,

Entitateko ordezkari legekoa

Entitatearen zigilua

**AURKEZTUTAKO DATUEN EGIAZKOTASUNAREN ZIURTAPENA**

ENTITATEKO ORDEZKARI LEGEZKOA	
Izen eta abizenak	
NAN	Kargua
Ordezkatzen duen entitatea	

Agiri honetan datuak agertzen dituen pertsonak zehazten den entitateko ordezkari legezko gisara jarduten du eta HAUXE ZIURTATZEN DU:

- ☐ Jasotako zenbatekoen justifikazioari buruzko agiri hauetan aurkeztutako datu guztiak egiazkoak direla.
- ☐ Diruz lagundutako jarduera-egitaraua burutu dela.
- ☐ Jasotako zenbatekoa emakidan adierazitako helbur eta kontzeptuei zuzendurikoa izan dela.
- ☐ EZ DUELA bestelako diru-laguntzarik JASO.
- ☐ Diruz lagundutako proiektua garatzeko diru-laguntza publiko edo pribatu hauexek jaso dituela:

Entitatea	Jasotako zenbatekoa

Portugalete,

Entitateko ordezkari legezkoa

Entitatearen zigilua

**JARDUERAREN OROIT-IDAZKI AZALPENEZKOA**
JARRAIBIDEAK

Honako hauek zehatz-mehatz deskribatu behar dira: burututako jarduera edo jarduerak, egin diren datak eta orduak, emaitzen balioespena, jardueraren parte-hartzaile edo onuradun kopurua sexuaren arabera, eta abar. Ohartarazpena: jardueraren xedeak bat etorri behar du diru-laguntzaren helburuarekin. Hala izango ez balitz, jasotako funtsak itzuli beharko lirateke. Behar beste orrialde erabiliko dira.

**JARDUERAREN DATU EKONOMIKOAK**

BEHIN BETIKO DIRU SARRERAK	
Emandako diru-laguntza	Kopurua
Gizarte Parte Hartze eta Berrikuntza Saila	
Beste diru-laguntza batzuk	Kopurua
Beste diru-sarrera batzuk	Kopurua
Entitatearen ekarria	
Diru-sarrerak GUZTIRA	

PROIEKTUAREN GASTU ZUZENAK		
Langileak (Gizarte Segurantzaren nominak eta gastuak)	Kopurua	Esleitutako kopurua
Argitalpenak eta komunikazio-jarduerak	Kopurua	Esleitutako kopurua
Proiektuaren gastu zuzenak (zehaztuta)	Kopurua	Esleitutako kopurua
Gastu Zuzenak GUZTIRA		



PROIEKTUAREN GASTU ZUZENAK EZ DIRENAK		
Gastu zuzenak ez direnak (entitatearen gastu orokorrak eta mantenukoak) gehienez % 10eko portzentajea 500 euroko zenbatekoraino. Portugaleten egoitza edo ordezkaritza duten entitateentzat soilik.	Kopurua	Esleitutako kopurua
Gastu Zuzenak Ez Direnak GUZTIRA		

GASTUAK GUZTIRA		
	Kopurua	Esleitutako kopurua
Gastu zuzenak		
Gastu zuzenak ez direnak		
Gastuak GUZTIRA		



DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERA EGITEAREN ONDORIOZ SORTUTAKO GASTU GUZTIEN ZERRENDA SAILKAPENDUNA.

GASTUEN ZERRENDA

Zk.	Agiri mota (faktura, nomina...)	Zenbakia	Data	Hornitzailea	Kontzeptua	Kopurua
1						
2						
3						
4						
5						
6						
7						
8						
9						
10						